

2.MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua hainbat bezero taldeei zuzenduta dago. Lehenik, igerilari profesionalak eta entrenatzaileak. Bigarrenik, igerilari afizionatuak, gimnasia edo igerilekura joaten diren erabiltzaileak. Hirugarrenik, ur-kiroletako zaleak, hala nola surf, paddle surf edo kayak egiten duten pertsonak. Horiez gain, dutxan edo bainuan musika entzuten duten erabiltzaileak ere.

Igerilari profesionalak eta entrenatzaileak

Egunero igerilekuan entrenatzen duten pertsonak dira, eta beren entrenamenduak denborarekin eta erritmo egokiarekin sinkronizatzeko gailu fidagarriak behar dituzte.

Igerilari afizionatuak

Gimnasioetara edo igerilekuetara joaten diren erabiltzaile arruntak, dutxan edo saunan ere musika entzun nahi dutenak eta ohiko aurikularrek eskaintzen ez duten erresistentzia bilatzen dutenak.

Ur-kiroletako zaleak

Surf, paddle surf, bodyboard, kayak eta antzeko kiroltan aritzen diren pertsonak, ura, kolpeak eta mugimendu handiak jasango dituen ekipamendu sendoa behar dutenak.

Dutxan edo bainuan musika entzuten duten erabiltzaileak

Eguneroko erosotasuna bilatzen duten pertsonak, aurikular arruntak hezetasunagatik behin eta berriz hondatzen dituztenak eta alternatiba fidagarri bat behar dutenak.

Teknologia maitaleak

Produktu bereziak eta berritzaileak probatzea gustuko duten erabiltzaileak, esperientzia berriak bilatzen dituztenak eta errendimendu altuko gailuetan interes handia dutenak.